

SESSION 2015

**CAPES
CONCOURS EXTERNE
ET CAFEP**

SECTION : LANGUES RÉGIONALES

BASQUE

COMPOSITION ET TRADUCTION

Durée : 5 heures

L'usage de tout ouvrage de référence, de tout dictionnaire et de tout matériel électronique (y compris la calculatrice) est rigoureusement interdit.

Dans le cas où un(e) candidat(e) repère ce qui lui semble être une erreur d'énoncé, il (elle) le signale très lisiblement sur sa copie, propose la correction et poursuit l'épreuve en conséquence.

De même, si cela vous conduit à formuler une ou plusieurs hypothèses, il vous est demandé de la (ou les) mentionner explicitement.

NB : La copie que vous rendrez ne devra, conformément au principe d'anonymat, comporter aucun signe distinctif, tel que nom, signature, origine, etc. Si le travail qui vous est demandé comporte notamment la rédaction d'un projet ou d'une note, vous devrez impérativement vous abstenir de signer ou de l'identifier.

Tournez la page S.V.P.

Epreuve écrite de langue basque

Sujet :

Ondoko bi testuetan oinarrituz azpiko hiru galderak landuko dituzu :

1. *Montebideorat juailiak* deitu kobletan, Etxahun-Barkoxek zer salatzen du? Zein dira aitzinean eman nahi dituen baloreak eta hortarako erabiltzen dituen baliabide literarioak?
2. *Amodioa* deitu saio laburrean, zein giro erakusten du Jean Etxeparek? Zein dira giro horren ezaugarri nagusiak?
3. Bi testuek zer idurikatzen dute, partez bederen? Zein dira bietan agertzen diren “gizarteratzeko” (gizarte egiteko erak) arau edo balore ezberdinak? Zer dute adierazten beren elkarren arteko bizimoldeek orduko (euskal) kulturari begira?

Montebidorat¹ juailiak

1. Bi bertseten huntzeko denbora düt hartzen

Üskal Herri güzian, nahiz khanta ditzen

Montebidorat dira hanitx abiatzen

Bere khartiel huna, beitie kitatzen

Eta gaixtuaguan, fortuna txekatzen.

2. Hau da üskaldünaren sistima tristia

Hürrünian beitie² bere sinhestia

Ustez aisago egin han aberastia

Deuz ez dien lekian, zer aperentzia

Hori da arrantzüra larrerat juitia.

3. Sujet faltsü eli bat jiten zaitze hanti

Nahiz jente erostez, zerbait irabazi

Gero haiek laidatzen herria azkarki

Nahiz ahal bezainbat eraman hebenti

Bere fortunak behar hek egin sinpleki.

4. Aita eta amer deitze haurrak galerazten

Hasten zaitzen phüntian zerbaiten egiten

Ustez fortunaren txerkha, dutie igorten

Beren etxen beharrak beiteitze emaiten

Haurren gaixki ezartez, berak gaixki jarten.

5. Aytama hurak dira, ezarten nigarrez

Haurrak haboro ikhus ez titzen beldürrez

Trete³ hek hitzemaiten, khuntü hartzera hez

Lehen etzeizkitzenak, salerazi urrhez

Saleraziten deitze, ordian gezurrez.

6. Haur gaxo hurak dira itxasoan sartzen

Bere galerazleak gidatako hartzen

Muntebidora ordun, gero hek kitatzen

Ordian hasten dira bihotz min egiten

Zeren bere aitamak kitatü zütien.

7. Gure aita ezta, zure haurregati

Odola ixurtera zünikina ützi

Gük dögün estatia⁴, untsa bazeneki

Fi gaixto egiteko bazünüke aski

Gü traditü gütien traidore hegati.

8. Gure ama trendia, gük ützia etxen

Gure abiatzian, bihotz min egiten

Egun gure plañiak, bazüntü entzütien

Nula gure ützia, dögün deitoratzen

Nahigo güntüketzü ikhousi ehorzten.

9. Ezin biziz girade, jarririk esklabo

Etxen güntielarik gük beharrak oro

Anaiak girade ezari soldado

Arreben estatia, aldiz tristiago

Haren aiphatzia zait haien phartez laido.

(Fait par Etchahon de Barcus le 2 août 1853)

J. Haritschelhar: *L'oeuvre poétique de Pierre Topet-
Etchahun*, Euskaltzaindia, Bilbao, 1970.

¹ Montebido = Montebideo

² Euskaldunek

³ traître

⁴ egoera

Amodioa

Egun hartan, eskolako lagun andana Biarritzen elgarretarat bildurik, Eskualdun eta mendien alderdietarikako erdaldun –notari, mediku, abokat, potikario, ingañadore, eta eskoletxe handi batetako irakasle zenbeit- goxoki bazkalduak ginen mahain beraren inguruan, leihoak zabaldurik, itsas hegiari dauden ostatuatarik batean.

Ez, baitezpada, phesta egiteko harat joanik, baizik ere elgar ikusteko.

Eskoletan guti edo aski burua alhatu dutenek ez dakite gehiago phesta zer den : ohartuago gizona, eta beldurriago duzu jan-edan soberatik kalte har ; herabeago ere lagunentzat, hok nakaizturik gaizki daizkion ; elheketa gogoaren erabiltzeak dakolarik oroz gainetik apurtzen aho ala sabeleko gozoa.

Baina zer atsegina elgarretaratze hartan ! Zer begitarte arraia batzuek bertzeer! Zer esku tinkatzeak! Ezpainek erran aitzinean, begiek urrunerat salhatzen: “Ba, hemen nuk! Nolaiz? Ehintudan ez, ahantzia! Bada lan zien eskualdian?” eta ondarrik gezurño hau, ñiñiak uste gabetarik klikk ilhuntsen zauzkitzula: “Ehiz izpirik ere zahartzen, mutikoa!”

Eta gero, jarririk, zer mintzaldi lañoak !... Bihotza ager, zabaldurik, hutsak eta oro aithortzerainokoan ; herri ttipiko nahigabe, aiherkunde, herra, han iretsi eta pairatu laido aphaltak irakur, hiri handian lehenago iragan egun eder aberatsez artetan orhoituz ; jakintsunen asmuak xuriturik ezar, bipildurik, bizitzeak bat bederari eman dautzueken irakaspenarekin ; Pariseko, Bordaleko, Tolosako xoko maiteetan gogoz elgarrekin berriz ibil, harat-hunat; ahalgerik gabe edozer aipha: jastatu duenak baizik ez dezake erran mihiz, adixkideen arteko baino minagoa baita ezen, eskolako lagunek beren biltzarretan dematen zorion hori.

Bazkal ondo ginauden beraz egun hartan, jateko lekutik pipatzekora aldatuak, hemen alki guri batzuetan jarririk errara; hunek atheraldi, harek zirto, bertzeek irri, itsas haize gaziak xixtaka perekatzen gintuela.

Jean Etxepare, “Amodioa”, *Buruchkak*, 1910.

Traduire le passage suivant :

L'hiver, elle se tenait dans sa chambre, assise entre la fenêtre et la cheminée, occupée à coudre ou à lire, devant une petite table à ouvrage qui lui avait appartenu étant jeune fille. Pendant les longues heures qu'elle passait seule, que de fois ne regardait-elle pas la fleur jaune, en bois d'oranger incrusté sur le palissandre, en pensant très tristement à mille choses que j'ignore ! Puis elle relevait la tête et se mettait à faire aller son aiguille, poussant un soupir ou se serrant les lèvres ; mais dès que le printemps était revenu et que les premiers bourgeons de lilas étaient éclos, elle allait avec son ouvrage se placer dans la tonnelle, et elle restait là jusqu'au soleil couchant. Aussi, tout en travaillant dans leurs chambres, les jeunes gens qui regardaient dans le jardin voyaient son sarrau blanc passer çà et là derrière les arbres ; elle se promenait dans la grande allée du rond, le long du mur, regardait les espaliers, regardait un brin d'herbe, ne regardait rien, se baissait pour cueillir de la violette, cassait avec ses doigts les boutons morts des églantiers, allait et venait.

Flaubert, *L'éducation sentimentale*

Questions de traductologie:

- Quelles difficultés la proposition relative peut-elle présenter pour sa traduction en basque et quelles solutions proposez-vous (brièvement) ?
- Comment traduisez-vous *dès que* ?
- Comment le basque oppose-t-il *voir* et *regarder*, présents dans le texte ? Vous tiendrez compte des variétés dialectales.